

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko "Santo Tomás" 9. sektoreko RU-L-4 etxadiaren xehetasun-azterketari

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 19an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Santo Tomás 9. sektoreko RU. L 4. etxadiaren xehetasun-azterketari – Mountain View Real Estate, SL-k aurkeztua–, 2020ko maiatzaren 15ean erregistratutako proiektuarekin bat.

2. 2020ko maiatzaren 15ean erregistratutako proiektua URA- Uraren Euskal Agentziara igortzea, nahitaezko txostena egin dezan (urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006ko 7. artikuluko K letran xedatutakoa).

3. Xehetasun-azterketaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz ematea, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hilabeteko epean egokituz jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai –Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea–, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 23an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE